

## **Berriro ipini dute martxan Busturiko ipuin txapelketa**

**Apirilaren 3a baino lehen aurkeztu beharko dira ipuinak Busturiko Udal Liburutegian.**

O. Zabalondo

Busturiko Udalak beste behin ere martxan ipini du ipuin txapelketa. Hainbat urtetan ez dute txapelketarik egin, arduradunek esan bezala parte-hartzea gero eta eskasagoa zelako.

Ipuin lehiaketaren helburua euskarazko idazkera bultzatzea dela esan dute antolatzaileek.

Bi modalitate desberdin izango dira txapelketan; batetik, hamasei urtetik beherakoen modalitatea eta, bestetik, hamasei urtetik gorakoena. Modalitate bientzako ipuinen gaia librea izango dela azaldu dute antolatzaileek.

### **Boligrafoz edo ordenagailuz**

Aurkezteko moduari dagokionez, parte-hartzaileek boligrafoz idatzita edota ordenagailuz idatzita aurkeztu ahal dituzte ipuinak. Tamaina Din A-4 izatea beharrezkoa izango da eta orrialdeek alde batetik bakarrik egon beharko dute idatzita. Ordenagailuz idatziz gero, 'Arial' motako letran idatzi beharko da, hamabi tamainuan, eta bitarte normalarekin.

### **Apirilaren 3a baino lehen**

Parte-hartzaileek apirilaren 3a baino lehen aurkeztu beharko dituzte ipuinak liburutegian. Gutun-azal baten barruan sartu beharko dira ezizenarekin. Itxitako gutun-azal txiki batean, ordea, parte-hartzailearen izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia eta e-maila jarri beharko dira.

Modalitate bakoitzak bere saria izango du. Hamasei urtetik beherakoen irabazleak liburu sorta hartuko du. Nagusien irabazleak, oster, 300 euroko saria izango du.

Sariak apirilaren 24an banatuko ditu Busturiko Udalak, Altamirako kultur etxean. Sari banaketa ekitaldia 19:00etan izango da.